



Atta KENARE | AFP



IKUSMIRA

ZAPIA VERSUS MUNDUKO XAKE TXAPELKETA IRANEN

Otsailean, Teheranen Emakumeen Munduko Xake Txapelketa ospatuko da. Ika-mika jada piztu da. Ameriketako Estatu Batuetako jokalaria onenatariko batek, Nazi Paikidze-Barnesek ez duela parte hartuko adierazi du. Arrazoia, ez duela «hiyab» edo zapia jantzi nahi. Sare sozialen bidez, txapelketa «emakumeen oinarritzko es-

kubideak errespetatzen ez dituen herri batean» antolatu izana salatu du. Eta beste leku batean egin dezaten sinadura bilketa hasi du. Ekimena ez dute begi onez ikusi Iranen xakean jokatzen duten emakumeek. «Lehen aldia da Munduko Txapelketa antolatzen dugula eta emakume irandarrentzat aukera garrantzitsua da. Boikot kanpainak ez digu mesederik egiten», esan du 19 urteko Sara Khademalsharieh jokalaria. Zapia derrigorrezkoa bada ere, emakumeek presentzia nabarmena dute Iraneko gizartean eta politikan, eta ikasleen %60 dira. Batzuentzat zapalketa sinboloa dena, besteentzat ohitura kontua da. Betiko eztabaida eta paradoxa. Ainar Lertxundi